



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

KIROLA

Debagoieneko kirol elkarteentzako dohaineko aholkularitza eta laguntza zerbitzua

1. SARRERA

Debagoieneko Mankomunitatea osatzen dugun udalok, 2021. urteko egitasmoaren barruan, aholkularitza eta laguntza zerbitzua eskaini nahi diegu gure udalerrietako kirol elkarteei.

Kirol Management S.L.U. enpresa kontratatu dugu honako zerbitzu hauek eskaintzeko.

2. ESKAINTZA

2.1.- Kirol klubak erregularizatzea eta eguneratzea.

2.1.1- kirol klub bakoitzaren azterketa dokumentala proposatzen du, honako hauei dagokienez:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistroa: egungo zuzendaritza batzordearen estatutuak eta inskripzioa.
- Gipuzkoako Foru Ogasuna: zentsu aitortpena, jarduera ekonomikoak, BEZa eta sozietateen gaineko zerga.
- Gizarte Segurantzaren langileak izanez gero.
- Boluntarioritza: Boluntarioritza kontratua. Sexu delituen ziurtagiria.
- Aseguruak: klubaren erantzukizun zibila eta boluntarioen erantzukizun zibila eta istripuak.

Azterketa horri esker, erregistro, lan eta zerga egoera diagnostikatu ahal izango da, eta behar diren gomendioak edo izapideak ezarri ahal izango dira, hala badagokio, erregularizatzeko, batez ere administrazioarekin duten harremanari begira.

2.1.2.- Kirol-klub bakoitzaren azterketa, ziurtagiri edo sinadura elektronikoki lortu ahal izateko:

- B@kQ
- Token Izenpe.
- Izenpe Txartela.



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

KIROLA

- Besteak: DNI, FNMT

Ziurtagiri edo sinadura elektronikorik ez badute, horiek lortzeko izapideak egiten lagunduko zaie.

2.1.3.- Kirol Management S.L.U.k kirol klub bakoitzaren azterketa proposatzen du, administrazioen aurrean duten ordezkariari dagokionez:

- Eusko Jaurlaritza: Eusko Jaurlaritzaren Erregistro Elektronikoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistroarekin, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Erregistro Orokorrekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroarekin izapideak egiteko legezko eta borondatezko ordezkariak.
- Gipuzkoako Foru Aldundia: legezko ordezkariak, zerga ordezkariak eta ordezkariak korporatiboak. Erakundearen erregistroa.

Ordezkaririk izan ezean, lortzen lagunduko zaie.

2.1.4.- Kirol Management S.L.U.k erakunde publikoekin (Udala-Foru -Aldundia- Eusko Jaurlaritza) izapideak kudeatzen lagunduko dizkie behar edo/eta eskatzen dituzten kirol klubei: dirulaguntzak, baimenak, eskaerak, ziurtagiriak, etabar.

2.2.- Laguntza teknikoa.

Laguntza teknikoa kasu bakoitzean egindako analisiaren ondorioz egin beharreko izapideetara egokituko da.

- Aurretiko hitzordua eta arreta pertsonalizatua(2.1.) atletik eratorritako zereginetarako.
- Online arreta, posta elektronikoz, erregulazioetan eta eguneratzeetan sortzen diren zalantzak argitzeko.

Bilera bat egingo litzateke kirol klub bakoitzarekin, emandako dokumentazioa berrikusteko eta alderdi guztiak berresteko. Bilera berean, erregularizatzeko egin behar diren izapideak planteatuko lirateke, eta izapideetan lagunduko zaie.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

KIROLA

Zerbitzua aurrez aurreko lana eskatzen duten gaietarako zehaztutako lekuan edo tokietan emango da. Lan telematikoak eta bestelakoak enpresaren egoitzan egingo lirateke.

3. EPEAK

Sei hilabete. Kontuan hartu beharko da epea luzatu egin daitekeela, administrazio izapideak hirugarrenen aurrean egin behar direlako eta kirol klubek informazioa eta dokumentazioa eskura dutelako.

Interesa duten klubek, **kirolteknikari@gmail.com** edota bere udalerriko kirol zerbitzura helbidera idatziz.

Honako fitxa hau bete eta bidali egin beharko dute, beti ere **maiatzaren 31a** baino lehenago.

ELKARTEAREN DATUAK	
Elkartearen izena	
Herria	
Zein kiroletan aritzen da	
Harremanetarako pertsona	
Helbide elektronikoa	
Telefonoa	

INTERESAK	bai	ez
Estatutuak		
Ogasuna		
Gizarte segurantzza		
Boluntarioria		
Aseguruak		
Ziurtagiri /sinadura elektronikoa		
Ordezkaritza		
Izapide administratiboen kudeaketa		

Arrasaten, 2021eko maiatzaren 11an

Debagoieneko Mankomunitateko kirol batzordea